

ELKAR BIZI ELKAR IKASI PROIEKTUA

Helburua: Kurtsoko gurasoak elkar ezagutzeko topagunea

2011ko urrian, Elkarbizitza Batzordea bildu ginen urteko gaiak eta ekintzak prestatzeko. Elkarbizitza taldea mistoa da gure Eskolan, 5 guraso eta 5 irakasleek osatzen dugu eta hilabetero biltzen gara gai desberdinak lantzeko.

Urriko bilera horretan proiektu berri bat martxan jartzera animatu ginen ELKAR BIZI ELKAR IKASI.

Ze proposamenarekin?

Helburua ez zen bakarra, eta esperientziak horrela erakutsi digu:

- Kurtsoko gurasoak elkar ezagutzeko. Honek umeen arteko erlazioa ere indartuko zuela espero genuen.
- Guraso bezala, bakoitzak dituen kezka eta beldurrak konpartitzea.
- Besteen esperientzietatik ikastea.
- Kurtsoko guraso eta irakasleen artean harremana sendotzea
- Etorrinei integrazteko esparru bat ematea.
- Gurasoak eskola gerturatzea

Nondik hasi?

Haur Hezkuntzako talde bat izan behar zen, errazagoa iruditzen zitzaigun ume txikiak dituzten gurasoekin hastea. Guk ditugu kezka gehien, pardelak, beldurrak, jeloskortasunak, etb.

Eta gainera, kasualitatea medio, elkarbizitza taldean HH4ko 3 amak egin genuen topo, beraz martxan jartzeko erdi-pausu bat emanda zegoen.

Topagunea?

Eskola jangela txikia. Oso leku atsegina eta meriendatzeko benetan aproposa, kafetxo bat egiteko, platerak, edalontziak, erosoak. Ordua? Abiapuntu bat jartzeko, han genden hiru amak 19.00tan ordu ona izango zela adostu genuen, gehien bat lasai joateko, umeak etxean goxo goxo utzita.

Gonbidapena?

HH4 kurtsoko guraso guztiei pasa genien gonbidapena. Otsaileko ostegun batean elkartzeko pasa genuen deialdia, sorpresa moduan, jendearengan kuriositatea sortzeko ea zer zen merienda berri hori.

Baina dena ezin kontrolatu eta lehenengo egunean kriston elurra bota zuen eta horrek gurasoak etxean bero bero gelditzeko bultzatu zituen eta 4 guraso bakarrik elkartu ginen. Hain gustora, meriendatxoaren inguruan gure semeei buruz hizketan, ez genuela etsi eta hurrengo gonbidapen bat bidali genuen.

Eta bigarrean bai, arrakasta gehiago eta dozena bat guraso elkartu ginen, hileroko elkartzeko gogoarekin eta eskolak, inongo eragozpenik gabe, hileroko eskola irekitzen digu gure "elkarlanerako".



Bi topaketa ondoren asuntxo animatzen joan zen, eta kurtsua borolbitzeko gurasoek gure semeek "oparitxo bat" merezi zutela pentsatu genuen.

Eta han hasi ginen, zer egin edo ez, kurtsu bukaeran gure semeen aurrean egiteko. Zergatik betik gurasoak lasai lasai aretoko eserlekuetan eseri eta umeen jaialdia ikusi? Paperak aldatzeko ordua zen.....

Antzezlan bat egitea bururatu zitzaigun, Txanagorritxo, nork ez daki ipuin klasiko hori! Ensaio gutxi batzuekin aterako zitzaigulakoan, martxan jarri ginen. Uste baino prestakuntza gehiagorekin, dialogoak, eszenatokia, jantziak, etb kurtsoko azken arratsaldean psikomorizitate gelan agertu ginen.



Bertan ikusle bezala, eta zeharo harriturik, HH4 eta HH5 eko ikasleak! Gure semeen aurpegiak ikusteagatik bakarrik benetan pena merezi izan zuen! Ondoren denak elkarrekin parke batera hurbildu ginen meriendatzera, urduritasun guztiak psikomotrizitate gelan utzita!

Ondorengoak eskolako webgunerako link-ak dira, bertan gure antzezlan eta abestiak txintxilikatu dira:

<http://www.domingoagirre.net/youtube.aspx>

http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=GoJeeCJuDPQ#!

Konklusioak?

Bata besteengandik ikasi dugu, errespetatu eta momentu politak bizi izan ditugula gure semeekin. Eskolak ere guraso talde bat aurki du ekintzetan laguntzeko prest, iñauteriak etb.

Aurten, elkarbizitzako batzordean adostuta, proiektu hau Haur Hezkuntzako beste kurtsoetara zabaldu dugu. Aurkezpen bat egin diegu eta topagune bat edukitzeko aukera zabaldu.

Hau izan zen pasa den urteko esperientzia eta noski aurtengo kurtsoan ere martxan jarri gara. Kurtsoa ondo hasteko, ahal izan genuen familiak, 7, Zarauzko kanpinean pasa genuen iraileko asteburu zoragarri bat.



Ondoren hileroko meriendekin hasi gara, kurtso honetan gurasoentzako tailerren bat ere ospatu dugu:

- Pitxien tailerra: Ama batek harizko pultserak egiten erakutsi digu, kumijimo teknika, gero gure semeei erakusteko asmoz.
- Masaje tailerra: Masaje lasaigarriak ematen, eta jasotzen, erakutsi ziguten.
- Munduko dantzan: Munduko dantzen inguruan tailer positibo bat izan genuen.

Tartean ere, famili guztiek bazkari bat ospatu dugu, eta nola ez. kurtso bukaerako ekitaldia prestatzen hasi behar dugu.

Eskola: CEIP Domingo Agirre Legazpiko Eskola Publikoa

Kontaktua: Maria Martinez (IGEko lehendakariordea)

Emaila: mariamartineznunez@gmail.com